



**Barakaldo**  
CIUDAD · HIRIA

**eretza**  
SOCIEDAD  
DE GESTIÓN  
URBANÍSTICA

# **ESTATUTUAK**

## **ERETZA, S.A. HIRIGINTZA KUDEAKETARAKO SOZIJETATEA**

2022ko uztailearen 18an eguneratua



Udalaren Osoko Bilkurak, 1996ko urriaren 21ean egin duen aparteko bileran «Eretza, S.A. Hirigintzako Kudeaketarako Sozietatea» izeneko Udal Sozietate Anonimoa behin-betiko eratzeko onespena ematea erabaki du; halaber, sozietate horren estatutu hauek onetsi ditu:

## I. kapitulua

### **SOZIETATEAREN IZENDAZIOAZ, IRAUPENAZ, XEDEAZ ETA EGOITZAZ**

#### **1. artikulua - IZENDAZIOA**

Eretza, S.A. Hirigintzako Kudeaketarako Sozietatea izendazioa duen Merkataritzako Sozietate Anonimoa eratu da. Sozietate hori eraenduko dutenak hauek izango dira: Estatutu hauek, Sozietate Anonimoari buruzko Legearen testu bateratua, Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen Legea eta Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua; halaber, kontuan hartuko dira 1992ko ekainaren 26ko Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratua, 1978ko abuztuaren 25eko Hirigintzako Kudeaketari buruzko Araudia, Hirigintzako Sozietatei buruzko maiatzaren 2ko 1.169/1978 Errege Dekretua eta, aplikagarria den arloetan, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 5eko 278/83 Dekretua eta toki araubidearen alorrean indarrean dauden eta aplika daitezkeen beste xedapen batzuk.

#### **2. artikulua - IRAUPENA**

Sozietatearen iraupena ez da mugatu eta eragiketak eraketa eskritura egilesten zaion datan hasiko ditu; Sozietatea Merkataritzako Erregistroan inskribituko da.

#### **3. artikulua – SOZIETATEAREN XEDEA**

1. Sozietateak xede sozialtzat izango du:

- a) Barakaldoko Hirigintza Planeamendua kudeatu eta garatzea.
- b) Birgaitze pribatuan aholkularitza osoa ematea, bai eta hiri-pasaia hobetzen ere, urbanizazioa hobetzeko zerbait egiten ari diren aldeetan.
- c) Errentamendurako eta/edo salmentarako Babes Publikoko Etxebizitzan eta zuzkidura-bizitokien eraikinak sustatzea.
- d) Sozietatearen jabetzako edozein ondasun higiezin errentatu eta/edo lagatzea.
- e) Barakaldoko Udaleko edozein administrazio-organori laguntza tekniko eta/edo zerbitzu teknikoak ematea, baldin eta prozeduran organo instruktoreari Barakaldo udalerriko ondare eraikiaren birgaitze-obren/proiektuen balorazioarekin lagundu behar bazaio.
- f) Hirugarrentzat lan osagarriak egitea, hala nola Barakaldoko Udaleko edozein administrazio-organoren administrazio-prozedurei buruz informazioa ematea edo haiek zabaltzea.
- g) Beste administrazio batzuetarako jarduera material edo teknikoak eta sozietatearen



helburuarekin zerikusia duten bestelako jarduketak egitea, betiere administrazio-gaitasunak erabili behar ez badira.

- h) Udalerriko bitzitza-politikan esku hartzeko eragilea den neurrian, bere zereginen esparruan, udalerriko etxebizitza babestuak (sustapen publikoak eta hirugarrenekin hitzarmenak eginez pribatuak) sustatzen eta adjudikatzen eraginkortasunez parte hartzea, garatu eta egikaritzeko baliabide egokiak baititu.
- i) Bere hedadura guztian etxebizitzaren edo birgaitzearen eskumen-eremuan ondare eraikiarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa egitea eta etxebizitzaren arloan beste edozein politika gauzatzea.

## 2. Sozietatearen oinarrizko jarduerak ondoko hauek dira:

- 2.1.- Lurzorua sustatzea eta programazioak egitea, zertarako-eta Barakaldoko Hirigintzako Udal Plangintzaren zehaztapenak burutzeko eta, bereziki, ingurugiroa babesteko eta hobetzeko.
- 2.2.- Hirigintzako Plan eta Proiektuak gertutzea, zama eta onuren banaketei buruzkoak barne.
- 2.3.- Gizarte eta Hirigintzako azterlanak gertutzea eta horien jarraipena egitea.
- 2.4.- Etxebizitzaren edo birgaitzearen eskumen-eremuan ondare eraikiarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa egitea.
- 2.5.- Urbanizazioak sustatzea eta kudeatzea.
- 2.6.- Eta, oro har, maiatzaren 2ko 1.169/78 E.D.ren 3.2. artikuluan ezarri diren helburuak betetzea.

## 4. artikulua – IZAERA JURIDIKOA

Erakunde pribatuaren izaera izango duen Sozietatearen helburuak eskuratzeko ondokoak egin ditzake:

- 1. Lurrak eskuratzeta, eraikiak zein ez, eta lurrak besterenganatzea.
- 2. Desjabetzapen espedienteen idazkuntzan eta kudeaketan laguntzea eta horien onuraduna izatea.
- 3. Merkataritzako sozietate pribatuetan, erantzukizun mugatuarekin, parte hartzea.
- 4. Plangintza burutzeko hirigintzako hitzarmenak ituntzea.
- 5. Kreditu eragiketak ituntzea, baita gauzazko bermeak ezarri behar direnean ere.
- 6. Oinarrizko erkidegoaren gehikuntza eta hobekuntzarako plan inbertsio zehatzak gertutzea.
- 7. Herri administrazioekiko lankidetzeta hitzarmenak ezartzea.
- 8. Kudeaketa-enkarguak eta/edo -mandatuak jasotzea, dagokionaren arabera.



**Barakaldo**  
CIUDAD · HIRIA

**eretza**  
SOCIEDAD  
DE GESTIÓN  
URBANÍSTICA

9. Bere hedadura guztian etxebizitzaren edo birgaitzearen eskumen-eremuan ondare eraikiarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa egitea eta etxebizitzaren arloan beste edozein politika gauzatzea.
10. Herri erakundeen baliabide eta eskuhartzeak koordinatzea eta bideratzea.
11. Jarduketa pribatuak kontrolatu, zuzpertz, kudeatu, aholkatu, informatu eta koordinatzea.
12. Eraikuntza edo birgaikuntza burutzapen obretan behin-behineko etxebizitzak eskuratzeko plana gertutzea.
13. Zuzenbide arruntean ezarri diren ondasun higigarri eta higiezinen gaineko eskubide guztiak eskuratu, eskualdatu, eratu, aldarazi eta iraungitzea.
14. Karga horren pean dauden lursail, eraikuntza eta/edo ondasun higiezinei dagokienez, Barakaldoko Udalaren izenean, lehentasunez erosi edo atzera egiteko eskubideak erabiltzea.
15. Eta, oro har, maiatzaren 2ko 1.169/78 E.D.ren 3.2. artikuluan ezarri diren helburuak betetzea.

#### **5. artikulua - SOZIETATEAREN HELBIDEA.**

Ondore guztietarako, Sozietatearen egoitza Barakaldoko Udaletxean dago, Herriko Plazaren 1. zenbakian.



## **II. kapitulua**

### **SOZIEATEAREN KAPITALAZ**

#### **6. artikulua – SOZIEATEAREN KAPITALA**

1. Sozietatearen kapitala 6.614.642,51 eurokoa da, hau da, 6.614,64251 euroko mila akziotan taxututa; akzio horiek izendunak izango dira eta bat zenbakitik mila zenbakira, berau barne, hurrenez-hurren zenbatuta egongo dira, erlo bakarrean. Sozietatea eratuko den unerako zenbateko hori erabat ordainduta egongo da.
2. Goian adierazi diren akzio horietan gauzatu den kapitalaren jabe bakarra Barakaldoko Udala da; erakunde horrek ezin du transferitu edo beste helburu batzuetarako erabili.

## **III. kapitulua**

### **SOZIEATEAREN ADMINISTRAZIO ARAUBIDEAZ**

#### **7. artikulua – ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA**

Sozietatearen zuzendaritza eta administrazioa ondoko erakunde hauen erantzukizuna izango da:

- a) Biltzar Orokorra; kideak Korporazioaren Osoko Bilkurakoak izango dira.
- b) Administrazio Kontseilua.

#### **I. atala. BILTZAR OROKORRAZ**

#### **8. artikulua – BATZAR NAGUSIA ERATZEA**

Sozietatearen Biltzar Orokorraren kideak Korporazioaren Osoko Bilkurakoak izango dira; erabakiak hartzeko prozedura ondoko manu hauei egokituko zaie: Toki Araubideari buruzko Legea, Toki Korporazioen Antolamendua, Jardunbidea eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia eta arloa araupetu duten gainerako legezko xedapenak. Dena den, erabakiak hartzeko ez da beharrezkoa izango informaziorako batzordeen irizpenik.

#### **9. artikulua – BATZAR NAGUSIAK**

1. Biltzar Orokorrak bi motatakoak izango dira: arruntak eta apartekoak.
2. Biltzar Orokor Arrunta ekitaldi bakoitzaren lehenengo sei hileen barruan bilduko da eta sozietatearen kudeaketa bete ezezik, hala denean, aurreko ekitaldiaren kontuak onetsi eta emaitzen aplikazioari buruzko ebazpenak hartuko ditu.



3. Aurreko lerroaldean aurreikusi ez den beste edozein motako Biltzar Orokor apartekotzat joko da eta kideen laurenak eskatuzdeitu ahalko da.

## **10. artikulua – BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK**

Korporazioak, Biltzar Orokorraren betebeharretan, ondoko ahalmenak izango ditu:

- a) Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea, horien karguak berriztatzea edo berrestea.
- b) Estatutuak aldaraztea.
- c) Kapitala igo eta urritzea.
- d) Obligazioak jaulkitzea.
- e) Inbentarioa, urteko balantzea eta urteko kontuak onestea eta mozkinen aplikazioari buruz ebaztea.
- f) Biltzar Orokorrak urte bakoitzerako esleitu duen kreditua gainditzen duten eragiketak baimentzea.
- g) Administrazio Kontseiluaren kideen ordainketa ezartzea.
- h) Estatutuen interpretazioan sor daitezkeen dudak ebaztea eta, hutsuneak daudenean, horiek betetzea eta horien berri Biltzar Orokorrari ematea bidezkotzat jo dezakeena ebatz dezan.
- i) Sozietate Anonimoei buruzko Legean, legeria osagarrian eta Sozietatearen Estatutuetatik eratorriak diren gainerakoetan Biltzar Orokorrari ematen zaizkion beste guztiak.

## **II. atala. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAZ**

### **11. artikulua – IZENDATZEA ETA ERATZEA**

Administrazio Kontseiluan, gutxienez, 5 kide izango dira eta, gehienez, 10.

Biltzar Orokorrak nahi bezala izendatuko ditu kontseilariak korporazio-kide nahiz Korporaziokoak ez diren pertsonen artetik, aurreko udal hautseskundeetako emaitzen arabera proportzionaltasun irizpidea aintzakotzat hartuz.

Korporazio-kide direnen kontseilari karguak doakoak izango dira. Ez direnenek desplazatzeagatiko konpentsazioak eta etortzeagatiko dietak kobratzeko eskubidea izango dute, horretarako zenbatekoak Biltzar Orokorrak erabakiko dituelarik urtero, eta beste herri-instituzioren batean ordaindutako kargua balute (izendapenez nahiz hautsepenez) ez dute aipatu zenbatekoak kobratzeko eskubiderik izango.

Udal legegintzaldiak dirauen bitartean egongo dira karguetan (lau urtez baino gehiagoz ezingo dute inolaz ere egon). Epealdia amaitutakoan berez etorriko da kargu uztea, Biltzar Orokorrak, uneoro, kargutik kentzea edo aldiro berriztatzea erabakitzea gorabehera eta, beti, arlo horretan legeak ezarri duena betez.



**Barakaldo**  
CIUDAD · HIRIA

**eretza**  
SOCIEDAD  
DE GESTIÓN  
URBANÍSTICA

Toki Administrazioan dagoen proportzionaltasun irizpide hori betetzeko, Biltzar Orokorrak, Kontseilua hautatzen den ekintzan, kontseilukideen botoa haztatua dela erabaki dezakete.

Administrazio Kontseiluaren barruan karguak hutsik baldin baleude, Kontseiluak berak behin-behinean hautatuko lituzke kontseilukide berria edo berriak, noiz-arte eta hurrengo Biltzar Orokorra egin arte.

## **12. artikulua - PRESIDENTEAK**

1. Kontseilua berezko lehendakariak burutuko du, eta hori Barakaldoko Udal Goreneko Alkate-Lehendakaria izango da. Kontseiluaren barruen lehendakari eraginkor eta lehendakariorde karguak ere izango dira.

Lehendakari eraginkorra berezko lehendakariak izendatutako korporazio-kide bat izango da, eta berari eskuordetu ahal izango dizkio hark bere esku dituen funtzioak, bai eta ez etortzeagatik, gaixotasunagatik nahiz bestelakoren bategatik gertatutako ordezteak ere.

Lehendakariordea berezko lehendakariak izendatuko du kontseilu-kide diren korporazio-kideen artetik, eta lehendakari eraginkorraren ordezkari jardungo du, gaixotasunagatik nahiz bestelakoren bategatik hark aritzerik ez duenean.

2. Kontseiluaren idazkari kargua sozietatearen letratu-aholkulariak izando du, eta haren ezean, administrazio kontseiluak izendatutako kategoria horretako udal funtzionario batek.
3. Kontseiluaren bileretara Kontseiluak izendatzen dituen teknikari eta aholkulariak eta legearen arabera eskubide hori duten guztiak joan daitezke, hizpidez baina hautespiderik gabe.

Kontseiluak, halaber, langileen ordezkari bat izango du. Ordezkari horrek hitza izango du, baina ez botoa. Langileen ordezkariak Kapital Sozietateei buruzko Legeak Administrazio Kontseiluko gainerako kideei ezartzen dizkien betebeharrak eta debeku berberak izango ditu, administratzaile izaerari ez datzekion kasuetan izan ezik, ez baitu boto-eskubiderik

## **13. artikulua - AHALMENAK**

Administrazio Kontseiluak Sozietatearen zuzendaritza, kudeaketa eta burutzapen ahalmen guztiak izango ditu, beti ere Estatutu hauek eman dituzten arauen eta merkataritzako legeriaren manuen barruan eta Biltzar Orkorri dagozkionak gorabehera.

## **14. artikulua - ESKUMENAK**

Administrazio Kontseiluaren beren beregiko eskumenak dira, eta beti ere honen aurreko artikuluan ezarri dena mugatu gabe, ondoko hauek:

1. Administrazio Kontseiluaren bileren araubidea ezartzea, hala arruntena nola apartekoena.
2. Sozietatearen izenean eztabaidatzea eta erabakiak hartzea, beren beregi Biltzar Orokorrentzat gorde diren eskumenak ez diren eta sozietatearen helburuarekin zuzenean zein zeharrean zerikusia duten negozio eta gai guztietan ebazteko ahalemarekin, honen



aurreko artikuluetan ezarri diren mugak gorabehera.

3. Sozietatearen eta bere zerbitzu guztien jarduna antolatzea eta ikuskatzea.
4. Era guztietako bankako maileguak eta kredituak eskuratzea, Banco de Crédito Industrial eta Banco Hipotecario de España erakundeek barne eta, hala denean, kreditu horiek hartzea, zatitzea eta banatzea.
5. Era guztietako gauzako eskubideak eratzeta, iraungitzea eta kitatzea, hipoteka eta errentamendurako berezia barne.
6. Ondasun higigarri, higiezin eta gauzako eskubideak erostea, iraungitzea eta trukitzea; finken lurzatiak, taldekatzeak, bereizketak eta banaketak egitea; obra berriaren, eraikitzen ari denaren eta behin-betiko bukatuta dagoenaren aitorpenak egitea; jabetza horizontaleko araubideak eratzeta, elementu komunean partaidetza ezarriz eta Erkidegoen Arauak idatziz.
7. Sozietateak ordaintzen dituen kopuru guztien ordainagiriak, gordekinak eta ordainketa gutunak ematea.
8. Ekintza eta kontratu mota guztiak egitea, tartean Estatua, Gordailuen Kutxa Orokorra eta Banco de España, Ogasun eta Lan Ordezkaritza, Foru Ogasuna eta beste erakunde batzuekin, edozein bulego edo ordezkaritzatan.
9. Lehiaketa, enkante edo lehiakortasun askeko ekintzetan aurkeztea eta parte hartzea; obra edo ondasunak, ekoizkinak edo zerbitzuak eskuratzea eta saltzea; proposamenak aurkeztea eta aldaraztea eta, oro har, era guztietako idazkiak eta agiriak aurkeztea, fidantzak eratzeta eta kentzea, Gordailuen Kutxa Orokorrean barne. Halaber, beharrezkoak diren agiri pribatu guztiak sinatzea; hornidura eta salmenten zenbatekoak jasotzea eta, azkenik, ordainketa gutunak, igorpenak eta gainerako agiri guztiak sinatzea.
10. Biltzar Orokorraren erabakiak betearaztea.
11. Sozietatearen fondoak nola erabili, ezarri eta inbertitu behar diren zehaztea, baita Sozietatearen jardunari dagozkion gainerakoak ere.
12. Sozietatea kudeatzeko sistemak onestea, baita, egoki denean, enplegatuen urteko plantila eta haien ordainsariak; Sozietatearen enpleguak agente, zuzendaritza edo erantzukizun bereziko karguetarako izendatzea edo kargutik kentzea.
13. Obligazioak jaulkitzeko behar den guztia antolatzea, Biltzar Orokorrak xedatzen duen eran.
14. Ekitaldia ixten denetik hasita hiru hileko epean, urteko kontuak, kudeaketari buruzko txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena egitea.
15. Administrazio Kontseiluburuari Biltzar Orokorrerako deia egiteko eta haren erabakiak betearazteko proposatzea.
16. Auziak auzitegitara eraman ala adiskidetzailen esku utzi behar diren erabakitzea.
17. Bere ahal eta eskurantzak, osorik edo zati batean, Administrazio Kontseiluburuari edo kontseilukideren bati eskuordetzea.
18. Indarrean dauden lege-xedapenak eta Sozietatearen xedea den zerbitzuaren araubideari





buruz ematen direnak betearaztea.

19. Ondasun eta eskubideei dagozkien auzietan atzera egitea, eta zuzenbideko edo ekitateko tartekaritzaren bidez ebaz daitezkeen arazoak prozedura horren pean jartzea.
20. Banco de España, honen sukurtsaletan edo beste edozein banku zein merkataritza kutxatan kontu korronteak eskatu eta irekitzea, eskudirukoak nahiz kreditukoak; taloiak, txekak ta kontu korronteetan fondoak sartu edo ateratzeko behar diren gainerako agiriak ematea; mugaeguneratutako kontu korronteak berriztatu, luzatu edo kitatzea, egoki baderitzo; bermeak jarri eta birjartzea eta bermeak ireki, bideratu, haiei buruzko gorabeherak ebatzi eta haiek kitatzeko behar diren agiriak egitea.
21. Ganbio letrak eta hileroko gainerako kreditu eta igorpen efektuak igorri, endosatu, onartu, negoziatu, deskontatu, kontuhartu, kobratu eta protestatzea.
22. Gainontzekoei ahala ematea, egoki deritzeten eskurantzekin, eta Sozietatea edonolako judizioetan defendatzeko abokatuak eta prokuradoreak izendatzea.

## **15. artikulua - PARTAIDETZA**

Administrazio Kontseilua baliozkotasunez eratuko da baldin eta kontseilukideen erdiak gehi bat edo haien ordezkariak batzarreratzen badira edo, hala denean, boto ponderatuen %50 baino gehiago eman behar dituzten kontseilukideak batzarreratzen badira.

## **16. artikulua – BILKUREN TOKOA ETA KOPURUA**

1. Administrazio Kontseiluak bilkura arruntak hiru hilean behin edo sarriago egingo ditu.
2. Aparteko bilkurak, berriz, kontseiluburuak hala erabaki edo hiru kontseilukidek eskatzen dutenean egingo ditu.
3. Bilerak Sozietatearen egoitzan edo kontseiluburuak adierazten duen lekuan egingo dira.

## **17. artikulua - DEIALDIAK**

1. Administrazio Kontseiluaren bileretarako deiak bilera egin baino gutxienez hiru egun lehenago bidaliko dira. Eguna, ordua, lekua eta aztergaiak jakinaraziko dira.
2. Aparteko bilera presazkoa denean, kontseiluburuak egoki baderitzo, deia bi egun lehenago igorri ahal izango da, baina halakoetan aztergaiaren edo aztergaien azalpen laburra gehitu beharko zaio.
3. Kontseilua bildu ahal izateko kontseilukide guztiek batzarreratu behar dute. Erabakiak hartu ahal izateko, horretarako eskatzen den adina kontseilukidek aldeko botoa eman behar dute.

## **18. artikulua - ERABAKIAK**

Administrazio Kontseiluak batzarreratuen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko ditu erabakiak, eta Biltzar Orokorak ezarritako haztapena aintzat hartuko du, hala denean. Hainbanaketa gertatuz gero hautespena berriro egingo da, eta bigarrenez gertatzen bada



kontseiluburuaren kalitatezko botoak ebatziko du.

### **19. artikulua - IZENDAPENAK ETA AHALMENAK ESKUORDETZEA.**

1. Administrazio Kontseiluak bere helburuak betetzeko beharrezko deritzen batzordeak izendatu ahal izango ditu. Beti ere batzorde aholkutzailleak izango dira eta ez dute erabakitze ahalmenik izango.
2. Ahalmenak eskuordetzeko erabakiak erabateko gehiengoz hartu behar dira.

### **20. artikulua – ZIURTAGIRIAK ETA AKTEN LIBURUAK**

1. Kontseiluaren eztabaida eta erabakiak Akten Liburuan agertaraziko dira. Liburu hori orri zenbakidun eta mugigarriez egingo da eta akta bakoitzaren amaieran haien aipamena jarriko da. Idazkariak bilera bakoitzaren akta idatzi eta hurrengo bileraren hasieran irakurri egingo du, eta batzarreratu guztiek sinatuko dute.
2. Akta liburuaren aipamena egiten duten ziurtagiriak luzatu aurretik Kontseiluaren idazkariak baimena eman beharko du. Ziurtagiri horiek kontseiluburuaren edo haren ordezkariaren ikusonespena eduki beharko dute.

### **21. artikulua – PRESIDENTEAREN EGINKIZUNAK**

1. Administrazio Kontseiluburuak eskurantzak izango ditu ondorengoak egiteko:
  - a) Sozietatearen estatutuak betearaztea.
  - b) Egoki deritzon arazoak Kontseiluan eztabaidarako jartzea.
  - c) Kontseilua bilerara deitzea eta haren eztabaidetan buru eta zuzendari jardutea.
  - d) Biltzar Orokorren eta Administrazio Kontseiluaren erabakiak betearaztea.
  - e) Sozietatea judizioetan eta judizioz kanpo ordezkatzeko, edonolako egintza eta kontratuetan. Halaber, epaitegi eta auzitegi arrunt eta berezietan, Estatuko, probintziako eta udalerriko agintaritzako organoetan eta bulegoetan, erakunde paraestataletan, sindikatu eta zuzenbide publikoko korporazioetan, Lan eta Ogasun ordezkarietan eta Foru Ogasunean, Sozietateari dagozkion era guztietako egintza, salbuespen, eskubide, erreklamazio eta errekursoak egikaritzea, eta egoki deritzon egintza horietariko edozeinetan atzera egitea.

### **22. artikulua – ZUZENDARITZA NAGUSIA**

1. Kontseiluburuak Sozietatearen zuzendari nagusia izeneztatuko du, Kontseiluak proposatuko dizkion hiru hautagaietariko bat aukeratuz. Kudeatzaileak Administrazio Kontseiluaren eta honen Aholku Batzordeen bileretan parte hartuko du.
2. Kudeatzaile kargua duenak ezin jardun izango du beste inongo lanbidetan. Haren ordainsariak eta zerbitzugintzarako baldintzak Administrazio Kontseiluak ezarriko ditu, figura



hori sortzea erabakitzen den unean eta kargua berriztzen den guztietan.

3. Zuzendari kudeatzaileak Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkion eskurantzak izango ditu. Eskuarki, ondokoak izango dira:
  - a) Langile eta zerbitzu guztien gorengo eta zuzeneko burutza.
  - b) Zerbitzu eta instalazioak zabaldu, aldarazi edo berriztatzeko eta behar bezala artatu eta mantentzeko proposamenak egitea.
  - c) Eragiketa eta zerbitzuei buruzko agiriak eman eta erregistro zein estatistikak eramatea, eta enpresaren ardurapean jarritako zerbitzuen inguruko ziurtapenak egitea.
  - d) Sozietatearen xedeak lortzeko azterlanak eta jarduerak proposatzea.
  - e) Kontseiluak eta kontseiluburuak aztertu eta onetsi beharreko arazoak prestatzea eta haiek erabakitzen dutena egitea.
  - f) Kudeaketari buruzko urteko memoriaren proiektua gertutzea.
  - g) Sozietatearen enplegatuek kontratatzea eta postutik kentzea, aginte, burutza edo erantzukizun bereziko kargua dutenak izan ezik, eta haien eginkizunak zehaztea.
  - h) Sozietatea judizioetan eta judizioz kanpo ordezkatzeko, edonolako egintza eta kontratuetan. Halaber, epaitegi eta auzitegi arrunt eta berezietan, Estatuko, probintziako eta udalerriko agintaritzaren organoetan eta bulegoetan, erakunde paraestataletan, magistraturetan,  
  
Lan eta Ogasun ordezkarietan eta Foru Ogasunean, Sozietateari dagozkion era guztietako egintza, salbuespen, eskubide, erreklamazio eta errekursoak egikaritzea, eta egoki deritzon egintza horietariko edozeinetan atzera egitea.
  - i) Banketxeengandik mota guztietako mailegu eta kredituak eskuratzea, Banco de Crédito Industrial eta Banco Hipotecario de España banketxeenak barne, eta, egoki denean, kredituak erabili, banatu eta zatitzea.
  - j) Banco de España banketxean, haren sukurtsaletan eta beste edozein kutxa, banketxe edo merkataritza etxetan Sozietatearen izeneko kontu korronteak irekitzea, eskudirukoak nahiz kreditukoak; taloiak, txekuek eta fondoak sartu eta ateratzeko behar diren gainerako agiri guztiak luzatzea, eta kontu korronteak berriztatzea eta kitatzea.
  - k) Ganbio letrak eta gainerako kreditu eta igorpen efektuak igorri, endosatu, onartu, negoziatu, deskontatu, kontuhartu, kobratu eta protestatzea.
  - l) Ordaintzeko aginduak ematea, kobrantzak egitea eta kontratuak onestea.
  - m) Bere ahalmenak erabiltzeko behar dituen agiri publiko eta pribatuak egilestea eta sinatzea.
4. Kudeatzailetzan pertsona juridikoek jardun ahal izango dute, izeneztapen egintzan ezarriko diren baldintzetan.



## IV. kapitulua

### SOZietatearen Ondareaz eta Ogasunaz

#### 23. artikulua – SOZietatearen Ondarea

1. Sozietatearen eraikin, lur, instalazio, makina, tresna, ibilgailu eta altzariak, eta berak bere helburuak betetzeko eraiki edo eskuratzen dituen gainerako ondasun eta eskubideak, zerbitzuari dagozkion helburuen lorpenari atxikita egongo dira beti. Sozietateak gainontzekoekiko erantzukizuna hartzen duenean lehenengo eta behin ondasun horiez erantzungo du.
2. Salbuespen izango dira Barakaldoko Udal Txit Gorenak Sozietateari lagatzen dizkion ondasunak, baldin eta erabilera hutserako lagatzen badizkio, Udalak jabetzari eusten diola.

## V. kapitulua

### EKONOMI KUDEAKETAZ

#### 24. artikulua – SOZietatearen Ekitaldia

Sozietatearen ekitaldia urtarrilaren lehenengoan hasi eta abenduaren hogeita hamaikan amaituko da urtero, Sozietatearen lehen ekitaldia izan ezik, berau Sozietatearen eraketa eskritura egilesten den egunean hasiko baita.

#### 25. artikulua - KONTABILITATEA

Sozietatearen kontabilitatea partida bikoitzaren sistemaz bideratuko da. Merkataritza Kodearen preskripzioak eta izaera pribatuko udal sozietateentzako beren beregi ematen diren gainerako xedapenak beteko dira.

#### 26. artikulua – GALDU IRABAZIEN BALANTZEA

1. Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, Sozietatearen ekitaldia itxi eta hurrengo lau hilen barruan, galera eta irabazien kontuaren balantzea eta mozkinen banaketari buruzko proposamena egin beharko ditu.
2. Administrazio Kontseiluak Udal Korporazioko kideen esku jarriko ditu galera eta irabazien kontuaren balantzea, mozkinen banaketari buruzko proposamena eta memoria, Sozietatearen egoitzan, Biltzar Orokorra egin baino hamabost egun lehenago, eta Udal Txit Gorenari aurkeztuko dizkio, Biltzar Orokorrerako deialdia Udal Korporazioak bilkurak araupetzeko preskripzioetan ezarritako epean eta eran egin ahal izateko behar beste denbora lehenago.



## **27. artikulua – SOZIETATEAREN IRABAZIAK**

Sozietatearen mozkinak Biltzar Orokorrak erabakiko duen eran erabili edo banatuko dira, indarrean dauden lege-xedapenak kontutan hartuta.

## **28. artikulua – FINANTZA KONTROLA**

Sozietatearen finantzen kontrola urtero egingo da, Kontuhartzailetza Orokorraren zuzendaritzapean. Lan hori egiteko auditoretza etxeren bat kontratatuko da.

# **VI. kapitulua**

## **SOZIETATEAREN DESEGITEAZ**

### **29. artikulua – SOZIETATEA DESEGITEA**

Sozietatea desegiteko zioak ondokoak izango dira:

- a) Sozietateak bere xedea buruturik edukitzea edo sortzerakoan eman zizaion helburu publikoa ezin bete izatea.
- b) Beste enpresaren batekin bat egitea edo beste enpresaren batek bereganatzea.
- c) Aurrez ezarritako kudeaketa organoa eraldatzea, horrela ezartzen duten lege xedapenekin bat etorritz.
- d) Biltzar Nagusiak, indarreko legeriak ezarritako beharkizunak betez, Sozietatea desegiteko erabakia hartzea.
- e) Sozietatearen kapitalaren %50a gainditzen duten galerak metatzea, kapital zabalkuntza egitea xedatzen denean izan ezik.

### **30. artikulua - ONDORENGOTZA**

Behin Sozietatea desegin eta likidazioa egin ondoren Barakaldoko Udal Gorenak aktiboa bereganatuko du, egonez gero. Likidazioa ondore horietarako soilik egingo da, eta Udala aktiboaz jabetuko da nahiz eta erregistroko idazpenak kitatu gabe egon.

## **XEDAPEN OROKORRAK**

Lehenengoa.- Estatutu hauetan beren beregi araupetu ez diren arazo guztietan, lehenengo eta behin indarreko legerian xedatu dena beteko da.

Bigarrena.- Sozietate honen karguetan jardutea debekaturik izango dute 1983ko abenduaren 26ko Errege Lege-dekretuan, baterako gainerako xedapenetan eta udal legerian bateraezintzat jotzen diren pertsonak.



**Barakaldo**  
CIUDAD · HIRIA

**eretza**  
SOCIEDAD  
DE GESTIÓN  
URBANÍSTICA

Hori jendaurrera azaldu da, Toki Araubidearen oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65. artikuluan lege beraren 70. artikuluari loturik ezarri dena betetzeko.

**Barakaldon, 1996ko urriaren 31n. Alkatea, Carlos Pera Tambo  
(10.251 zk.)**